



Esp. kodea: 2024YHIT0004

Gaia: 2024 LANKIDETZA HITZARMENA

Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

Hitzarmena

LANKIDETZA HITZARMENA ARRASATEKO UDALAREN ETA IBAI-ARTE MERKATARIEN ELKARTEAREN ARTEAN, 2024KO EKITALDIAN HIRI MERKATARITZA JARDUERA SUSPERTZEKO.

Maidor Morras Azpiazu andrea, Arrasateko Udaleko alkatea, Arrasateko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Javier Inda Altuna, Arrasateko Ibai-Arte Merkatarien Elkarteko lehendakaria, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz.

Batak besteari aitortzen dio gaitasuna duela hitzarmen hau izenpetzeko, eta kontuan izanda honako hau

AURREKARIAK

- Arrasateko txikizkako merkataritzako zenbait sektorek **gastu-ihes nabarmena** jasaten dute; besteak beste, Pertsonentzako eta Etxerako Ekipamenduan.

Gastu-ihes horien kausak, oro har, eragile hauen ondorio izan daitezke:

- Beste merkataritza guneetako eskaintza zabalagoa
- Kontsumo ohituren aldaketak
- Komunikazio bideen hobekuntzak
- Merkataritza egitura berrien sorrera
- Online bidezko erosketak

Faktore horiekin guztiekin, lehiakortasun maila gora doa, eta gero eta ohikoagoa da merkatu potentzial beragatik hainbat merkataritza gunetako eskaintzak lehian aritzea (online bidezko erosketak, hiriguneko dendak, saltoki guneak, azalera ertaineko denda espezialistak...). Gainera, azken urteetan Covid-19 pandemiak nabarmen eragin du online bidezko erosketak areagotzen.

- Arrasateko Udalak berea du eginkizuna hiriguneko merkataritza sektorea indartzeko, eta bere sailen bidez gauzatzen du betebeharrak.
- Azken urte hauetan, tokiko ekonomiak eta bereziki merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloek egoera ekonomiko larria pairatzen ari dira, eta Arrasateko Udalak hainbat ekimen abian jarri ditu egoera arintze aldera.
- Ibai-Artek 2024ko ekitaldirako, Merkataritza Dinamizazioa Programaren bidez, merkataritza teknikari baten laguntza du, sektorea suspertzeko ekimenak antolatzeko.

Kodea	BD24/03733	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA11MLA.1.YA2c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11MLA1.YA2c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024YHIT0004

Gaia: 2024 LANKIDETZA HITZARMENA

Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

5. Ibai-Artek udalari aurkeztu dio 2024ko ekintza plana, ekimen zehatz hauek eta ekitaldian zehar suertatu daitezkeen beste batzuk egiteko:

Merkemerkaua otsaila	Udaberri udako merkemerkaua
Martxoak 8	Merkataritza Berdearen Astea
Korrika	Bularreko Minbiziaren Nazioarteko
Ardo Eguna	Eguna
Gozatu Arrasatez	Gau Beltza
Mariatxi Festa	Mondrabember
Elkartasun Eguna	Black Arrasate
20,50 eta 100 euroko hobarien zozketa	Gabonetako kanpaina
Arrasate Blues	Digitalizazioa
Udako ordutegia	Arrasate irekia

6. 2024ko ekainaren 3an Arrasateko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen Ibai-Arteri lankidetza eskaintzea 2024rako ekintza plana egiteko.
7. 2024ko udal aurrekontuetan izendatuta dago partida bat hiri merkataritza suspertzeko (Ibai-Arterako ekarpena - merkataritza sustapena), 31.000 eurokoa.
8. Arrasateko Udalak Merkataritzan Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana du, eta bermatzen du herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak euskaraz ematea. Ibai-Arteri eskatzen zaio Merkataritza Sustatzeko Ekintza Plana egiteko, Euskararen Erabileraren Plana garatzeko konpromisoa jasotzea.
9. Arrasateko Udalak konpromisoa du udalerrian berdintasun politikak bultzatzeko. Ibai-Arte merkatarien elkarteari eskatzen zaio, urte barruan egiten dituen kanpainetan berdintasun irizpideak ezartzeko.

Azaldutako guztiagatik, erakunde biek

HITZARTZEN DUTE:

- Arrasateko Udalak gehienez 31.000 € arteko ekarpena egingo dio Ibai-Arteri 2024ko ekintza plana egin dezan. Arrasateko Udalaren diru ekarpenak ez du inoiz suposatuko ekintza bakoitzaren kostearen % 50 baino gehiago.
- Arrasateko Udalaren diru ekarpena honela ordainduko da:
 - Ekarpenaren % 50 hitzarmen hau sinatutakoan.
 - Ekarpenaren gainontzeko %50, edo likidaziotik ondorioztatzen den gainontzeko kopurua, urte amaieran eta ekintza guztiak jasoko dituen exekuzio memoria eta likidazio ekonomikoa aurkeztuta eta Udalaren Toki Garapenaren sailak onartutakoan.

Kodea	BD24/03733	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA11MLA.1.YA2c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11MLA1.YA2c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024YHIT0004

Gaia: 2024 LANKIDETZA HITZARMENA

Titularra: IBAI-ARTE ELKARTEA

- Likidazio ekonomikoa honela justifikatuko da:
 - Gastu bakoitzaren fakturaren kopia.
Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira:
 - Gastuaren ordainagiriak, Ibai-Arte Merkatarien Elkartearen zigiluarekin, eta hartzailearen sinadurarekin. Elkarteak banatutako sariak ere horrela justifikatuko dira.
 - Deskontuak eta antzekoak Arrasate txartelaren bidez egindakoak badira, txartela kudeatzen duen entitatearen zigilua daraman agiria aurkeztuko da, bertan era horretako mugimendu guztiak identifikatuta, egitasmoa bereizita.
 - Elkartearen diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiria:
 - Dirulaguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak
 - Bazkideen kuoten ordainagiriak
 - Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.
- 3. Ibai-artek konpromisoa hartzen du 2024ko ekintza planeko ekimen guztiak egiteko. Ekintza plan horretan jasotzen ez den ekimen berriren bat sortuz gero, Ibai-Arte udalari azalduko dio hori egin baino lehen. Era berean, 2024ko ekintza planak jasotzen dituen ekimenen bat egiten ez bada, aldaketa hori azalduko duen txostena aurkeztuko dio Ibai-Arte udalari.
- 4. Hizkuntza normalkuntzari dagokionez, Ibai-Arte konpromisoa hartzen du Hiri Merkataritza Suspertzeko 2024ko ekintza plana egitearekin lotutako mezu idatziak eta jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo ele bitan egiteko. Ele bitan denean, euskarari lehentasuna emango zaio era nabarmenean. Udalak, bere aldetik, mezuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko, Udaleko Euskara sailaren aholkularitza zerbitzua Ibai-Arteren esku jarriko du.
- 5. Ibai-Arte konpromisoa hartzen du kanpainenetan erabiliko duen iruditerian zein mezuetan sexismorik gabeko adierazpenak bermatzeko.
Ibai-Arte bermatuko du kanpaina guztietan genero, sexu, arraza zein gorputz aniztasuna kontuan hartzea.

Arrasaten, 2024ko uztailaren 10ean

Arrasateko Udala

Ibai-Arte Merkatarien Elkartea

Kodea	BD24/03733	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA11MLA.1.YA2c			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11MLA1.YA2c			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				